

***FREELANCEAK;
BIDEOJOKOAK
FINKATUZ
EUSKADIN***

LOS
FREELANCES,
AFIANZANDO EL
VIDEOJUEGO EN
EUSKADI



FREELANCEAK; BIDEOJOKOAK FINKATUZ EUSKADIN

Euskal Bideojokoen Historiaren aurreko kapituluan landu zen Zeus Software taldeak izan zuen garrantzia Euskadiko bideojokoen etorkizuneko sektorerako lehen harria jartzeko orduan. Merezitako protagonismoa izanik ere, protagonismo hori entretenimendu-softwarearen munduan lehen urratsak ematen hasi ziren garatzaile independenteekin partekatu behar dute.

Freelance horiek, agian, ez zuten lortu Raul López eta Ricardo Puerto donostiarrek lortutako ospea, baina lan eginez bideojokoen industria hasiberriaren oinarriak finkatu zituzten Euskadin.

Hasieran, uste zen Zeus Software donostiarren 'Hundra' bideojokoak zuela Euskadin egindako lehen bideojokoa izatearen ohorea. Hala ere, askotariko dokumentazioa aztertu ondoren, lehenago sortutako beste izenburu bat aipatu behar dugu, Joseba Epalza bizkaitarrak sortu eta 1985ean argitaratu zuena. Horrek ez du esan nahi lehena denik, orain arte dokumentatutako jokorik zaharrena dela baizik.

Sopelakoak informatikan zuen interesa Lanbide Heziketako Elektrizitatea-Elektronika ikastaroko lehen urteetan sortu zen. Ikasketa horretan ari zela ezagutu zituen bere lehenengo ordenagailuak, Olivetti M24 ordenagailuak, alegia. Gailu horien aukerez erabat liluraturik, lantegian zuten elektronikari buruzko *Elektor* aldizkarian ikusi zuen bizkaitarrak Sinclair ZX81 gailuaren iragarkia 24.950 pezetagatik (150 euro). "Gurasoei eskatu nien eta erantzun zidaten lehenengo ikasturtea errepikatu gabe gaindituz gero, erosikok zidatela".

Oinarrizko mikroordenagailu honekin hasi zen lehen urratsak ematen Basic lengoaian. "Horrek bultzatu ninduen aurrera egiteko informatika-munduan. Liluratu egin ninduen. Bururatutako zeinahi gauza edo ideia egin zenezakeen Basic lengoaian".

Dena den, urtebetera, Sinclair ZX81 gailua txiki geratu zitzaion. "1 KB besterik ez zuen eta hamar lerroko programa bat eginez gero, ezer gabe geratzen zinen. Baita kalkulagailu arrunt bat eginda ere".

Hortaz, gurasoei ordenagailu berri bat eskatu zien berriro. "Sinclair Spectrum 48K ordenagailua erosi zidaten 52.000 pezetagatik (312 euro). Oraingoan, sufritu egin zuten ordaintzeko. Epeka; bestela, ez zegoen erosteko modurik", onartzen du. Une horretan hasi zen benetan bizitzen informatika.

FROGGER

Sopelako programatzailea *MicroHobby* aldizkaria bezalakoen ohiko kontsumitzailea zen. Aldizkari hori laurogeiko hamarkadan programaziorako zaleen lehen Bibliatzat hartu zen. Astero, aldizkariaren barruko orrietan programa eta joko txikiak argitaratzen ziren eta irakurleei bidaltzen zitzaizkien. Horrela, erronka bat ezarri zuen: bere jokoak aldizkarian argitaratuta ikustea. "Gogoratzen dut zortzi joko inguru bidali nituela" eta horietako bi argitaratu zituzten, "baita hainbat programazio-errutina eta zenbait truku' ere".

Argitaratutako lehenengoa 'Frogger' izan zen, Sega/Gremlin (1981) jolas-makina klasikoaren ZX Spectrum 48K gailurako etxeko bertsio bat. Helburua da igela etxeraino eramatea, autoz betetako errepide bateko autoak saihestuz eta gero, arriskuz betetako ibai bat gurutzatzea. Epalzak zera bermatzen du: "ez zitzaidan gustatzen makinari bost ogerlekoko bat botatzea eta dirua galtzea; horregatik, 'Frogger' jokoaren nire bertsioa egin nuen".

Jokoari dagokionez, "grafiko onak zituen, baina abiadura-arazoak ere bazituen". "Ezin nituen mugitu pantailaren bi zatiak –autoz betetako errepideaz eta enborrez betetako ibaiez osatuak-. Errepidea igarotzean, autoak geratu egiten ziren eta enborrak mugitzen hasten ziren. Gainera, ezin zenuen atzera itzuli", azaltzen du desengainatuta.

Era berean, Epalza ez zen gustura geratu bere 'Frogger' jokoaren musikaren alderdiarekin ere. "Jatorrizko jokoak musika dauka. Ni ez naizenez musikaria, ni baino gehiago zekien Imanol Zalbidea lagunak itsusi entzuten ziren tonuekin lagundu zidan. Azkenean, animatu egin nintzen,

1. *MicroHobby* aldizkariko 27., 76. eta 83. zenbakietan argitaratuak.

baina azken emaitza oso txarra izan zen", gogoratzen du atsekabetuta. Jokoa "zakarra, gaizki araztua eta abiadura gutxikoa" dela onartu arren, Epalzak maitasunez gogoratzen du "prozesuan asko ikasi nuelako".

"*MicroHobby* aldizkarira ez bidaltzeko zorian izan nintzen. Etxean geratzen da eta ez da irtengo" esan zion bere buruari behin baino gehiagotan. Hala ere, ausartu eta kasetea gutun-azal batean bidali zuen HobbyPress enpresak editatutako aldizkarira.

1985eko martxoaren 26an iritsi zen dendetara *MicroHobby* aldizkariaren 21. zenbakia. Bederatzigarren eta hamargarren orrialdeetan agertu zen transkribatuta Joseba Epalzaren 'Frogger' jokoaren kodea Basic lengoaian, eta, horrela, ziurtasunez dokumentatutako lehen euskal bideojoko bihurtu zen.

Sopelakoarentzako harrotasun eta ohore handia izan zen aldizkarian argitaratzea, eta gainera, Epalzak txeki bat jaso zuen 10.000 pezetako (60 euro) balioarekin, *MicroHobby* aldizkariak "asteko" jokoen edo programen sortzaileei ordaintzen ziena. "Diruarekin joko bat erosi nuen. Uste du Spectrum gailuko 'HunchBack'² izan zela. Bestalde, iruzur bat izan zen, akatsa baitzuen lehenengo pantailan eta ezin zen gainditu".

EL ALMACÉN

MicroHobby aldizkarian agertu zen Joseba Epalzaren bideojoko bakarra ez zen izan 'Frogger'. Arrakasta izatetik bederlatzi hilabetera, aldizkariak Sopelakoaren beste bat argitaratu zuen. Oraingoan 'El Almacén' jokoa izan zen, Game&Watch³ bi pantailako makina klasikoko 'Mario Bros' jokoaren Spectrum mikroordenagailurako bihurtuta bat.

Ordenagailu eramangarria Julen Ardeo koadrilako lagunari esker iritsi zen Epalzaren eskuetara. Jolastu ondoren, ikusi zuen gai zela joko

2. 'HunchBack': <http://www.worldofspectrum.org/infoseekid.cgi?id=0002383>. 2014ko maiatzaren 15ean kontsultatutako orria.

3. Gunpei Yokoik sortuak 1980 eta 1991 artean, Nintendok 59 Game&Watch kotsola eramangarri jarri zituen saltzen eta bideojoko bat soilik zuten. Epalzak oinarritzat hartutako makina 1983ko martxoaren 14an jarri zen salgai.

hori bera Spectrum gailura pasatzeko, eta, beraz, lanean hasi zen. Programatzaile bizkaitarrak hainbat hilabete igaro zituen hura garatzen, Lanbide Heziketako ikasketekin aurrera jarraitzen zuen bitartean, programatzeko geratzen zitzaion denbora librean.

Erabiltzaileak Mario eta haren anaia Luigi kontrolatu behar ditu botilaratzeko fabrika batean. Eskuin aldean kokatutako pertsonaiak kaxak jarri behar ditu zenbait uhal garraiatzailetan. Kaxa horiek banaketa-kamioi batean jarri behar dit beste aldean dagoen Mariok.

Akats bisualen bat badu ere, jokoaren bihurketa ia-ia perfektua da. "Grafikoetarako memoria-espaziorik gabe geratu nintzen. Hori nabarmentzen da jokoaren erdiko zutabeen; izan ere, ezin izan nuen bilbe osoa errepikatu. Erreparatuz gero, ez daude batuta. Bakunduta daude".

Amaitu ondoren, Epalzak *MicroHobby* aldizkarira bidali zuen Nintendoren makinaren bere bihurketa Mario Bros jatorrizko izenarekin. "Baztertu egin zuten. Esan zidaten izen horrekin ez zidatela argitaratuko⁴. Aldizkarian argitaratzeko, aldatu beharra neukan. Azkenean, 'El Almacén' izendatu zen".

Epalzak programatutako jokoaren kodea *MicroHobby* aldizkariaren 55. zenbakiaren 8., 9. eta 10. orrietan agertu zen, 1985eko abenduaren 9ko astekoan, alegia. Kasu horretan, lortutako 15.000 euro DK'Tronics teklatu profesionala erosteko baliatu zituen.

Bizkaitarra, garaiko hainbat aldizkaritan trukuak eta programa osoak⁵ argitaratzera iritsi arren, hiru urte igaro behar izan ziren bideojokoen munduan berriro jendaurrean agertzeko. Ate handik sartu zen Amstrad gailurako 'Abracadabra'⁶ elkarrizketazko abentura-jokoaren bihurketarekin. Lan hori denda espezializatuetan eta El Corte Inglés dendetan saldu zen Espainia osoan.

4. Nintendok zituen Mario Bros izenaren eskubide guztiak.

5. Z80 desmihizatzailea (Amstrad User, 34. zk.).

6. Jorge Blecuak programatu zuen jatorrizko jokoa Spectrum gailurako.

Bizilagun ezezagunak

Sopelakoa zen Iñigo Ayo Blazquez ere. Espainiako softwarearen urrezko aroa deiturikoa bideojoko ezagunak garatzera iritsi zen beste euskal *freelance* programatzaileetako bat izan zen Ayo. Informatikarekiko jakin-mina 1984ko udan hasi zitzaion. Auzoko lagun bat zuri-beltzeko telebistara konektatzen zen Spectrum batekin agertu zen. "Hark txunditu egin ninduen, baita garaiko lagun guztiak ere. Arratsalde osoak pasatzen genituen 'Horace Goes Skiing'¹⁷ edo o 'Ant Attack'¹⁸ moduko jokoetan jolasten".

"Haren moduko ordenagailu bat edukitzearekin amesten nuen. Haur batek gurasoei zerbait erosteko eskatzen dien aldi guztietatik, uste dut amari Spectrum bat erosteko nik ez bezala inork ez zuela ama gogaitu; txapela irabazi nuen. Gogoan dut urte horretan institutuan hasi nintzela eta zera esaten niola:

- Ama, premia izango dut, konputazioa⁹ ikasi nahi dut eta ordenagailua ezinbestekoa da nire etorkizunerako".

Azkenean, Ayoren gurasoek Bilboko El Corte Inglés dendan erosi zuten ZX Spectrum 48K bat, "sei epe erosotan" garaiko 41.900 pezeta ordainduz. "Promozioan" zeudenez, saltzaileak hiru kasete eman zizkien aukeran. "Bazegon bat 'Assembler'¹⁰ deiturikoa eta nik uste nuen 'Moon

7. 1982an Psion Software Ltd (William Tang) enpresak garatutako ZX Spectrum 16K gailurako jokoa. Jokoa Ivestrónica enpresak banatu zuen Espainian 'Horacio Esquiador' izenarekin.

8. Sandy White programatzaile ingelesak sortua, ZX Spectrum 48K gailurako jokoa 1983an argitaratu zen. Ivestrónica enpresak banatu zuen jokoa estatuan 'Hormigas' izenarekin.

9. "Konputazioa; ez nekien benetan zer esan nahi zuen hitz horrek, baina etorkizun profesional gisa oso ondo ematen zuenez, primeran zetorkidan aitzakia gisa" (Iñigo Ayo).

10. 'ZX Spectrum Assembler' zen izen osoa eta programatzeko ikastaro bat zen.

Creesta¹¹ zela, guk 'Ensamblador' deitzen baikenion, ontziak mihizatzen baitziren. Hartzeko zorian izan nintzen eta saltzaileak, gizon bibotedun batek, ohartarazi zigun programatzeko software bat zela".

Eskuragarri zeuden hiruretatik joko bakarra zen 'Fighter Pilot'¹², borroka-hegazkin baten simulatzailea. "Tresna-koadro bat zuen lau lerro ziren eta ez zegoen hura ulertzerik. Hori izan zen eskuratu nuen jatorrizko lehen jokia".

Iñigo Ayorentzat, Spectrum gailuarekin igarotako lehen hilabeteak "zoragarriak izan ziren". "Gomazko tekladun makina beltzak harrapatuta ninduen". Joko gehiago ez zituenez eta zeudenak oso garestiak zirenez, Sopelako programatzailea *MicroHobby* aldizkaria erosten hasi zen; "Bibliatza" definitzen du. "Aldizkari batetik hartutako bi dozena kode-lerro tekleatzea Basic lengoian eta ondorioz pilota batekin lau bote ematen jolastea harrigarria zen". Ayok gogoratzen du aldizkari batetik bere oinarritzko ordenagailura lekualdatutako lehen jokia 'A Day at the Races'¹³ izan zela, galgo-lasterketen apustuei buruzko joko bat.

Garai hartan, Iñigo Ayok Joseba Epalza bizilaguna ezagutu zuen. "Ni baino hiru urte zaharragoa da eta ezagutu nuenean Lanbide Heziketako Elektrizitatea-Elektronika ikastaroa ikasten ari zen. Bere laguna egin nintzen eta programazioari buruzko gauza dezente ikasi nituen. Bere proiektuak kontatzen zizkigun eta Bilboko Cámara¹⁴ liburu-dendan erositako *Crash* edo *Computer Games* bezalako argitalpen espezializatuetako kodeak tekleatzen genituen".

11. Espazio-ontziei buruzko jokia zen, 'Nichibutsu' izeneko 1980ko jolas-makinan oinarritua. ZX Spectrum 48K gailurako programatu zuten Timothy Walter, Philip Taglione eta Pete Carter egileek.

12. Digital Integration estudio ingelesak garatu zuen eta Ivestrónica informatikako eta telefoniako handizkariak banatu zuen Espainian, El Corte Inglés saltokiaren filialak.

13. Berez *Sinclair User* aldizkari britainiarraren 29. zenbakiaren barneko orrietan argitaratua. Ondoren, *MicroHobby Semanal* (1984) aldizkariaren 001-004 konpilazioan atera zen.

14. Bilboko Euskalduna kalean zegoen eta atzerriko argitalpenen salmentan erreferentzia izan zen.

Horrela, joko arruntak eta amaitu gabeak egiten hasi zen Basic lengoaian. "Abiadura eta kalitatea ez ziren hainbesterako", bereziki Ayok jolasten zuen jokoetakoren batekin alderatuz gero, hala nola 'Abu Simbel Profanation' edo 'Sabre Wulf'¹⁵ jokoekin. "Programatzeko formula bat egon behar zen". Sopelakoak azkar atera zuen ondorioa: "makina-kodean soilik egin zitezkeen kalitatezko jokoak".

Aldi berean, Ayok eta bere lagunek programazioan eskuratutako ezagutzak aplikatu zituzten jatorrizko jokoen kopien aurkako sistemak urratzeko. "Zenbait joko babes bereziekin saltzen ziren, besteak beste, 'Camelot Warriors'¹⁶ edo 'Spy Hunter'¹⁷. Joko horiek kopiatu ahal izateko moduren bat bilatu behar genuela pentsatzen hasi ginen".

Horrela, mekanismoan arakatzuz eta *pokeak*¹⁸ sortuz bizitza amaigabeak lortzeko "jokoa nolakoa den ulertzen hasten zara". Gainera, *MicroHobby* aldizkarian eta Jesus Alonsoren *Libro código máquina*¹⁹ liburuan zetozen programazio-trukuak gehitu behar ziren. "Zati grafikoa zein den, mugimendua zein den eta abar ulertzen joaten zara... ezagutzak ulertzen, lotzen eta erlazionatzen joaten zara zure lehen bideojokoa egiteko".

Programatzaile bizkaitarrak onartzen duen arren "gauza asko" egiteko gai zela, oztopo handietako bat zen makina-kodea, eta "bakartutako errutinen nahaspilatza" jotzen zuen. 1986an, Ayok Getxoko Areeta

15. Ultimate Play The Game enpresaren joko britainiarra, Tim Stamper eta Chris Stamper anaiek sortua (1984).

16. 'Camelot Warriors' jokoaren lehen tiradek (Dinamic Software, 1986) SD1 izeneko periferiko bat zuten eta ZX Spectrum gailuaren hedapen-ataka batera konektatuta egon behar zen jokoan jolastu ahal izateko.

17. US Gold enpresaren jokoa, 1985ean banatua. Erbe Software arduratu zen jokoa Espainiara ekartzeaz.

18. Bideojoko baten tranpa bat; kodean argibide bat edo hainbat aldatzean datza, abantailak lortzeko.

19. *MicroHobby* aldizkariak zenbait zenbakitan argitaratu zuen 'Curso de Código Máquina del ZX Spectrum' dokumentua, Jesus Alonso aldizkariaren kolaboratzaileak egina. Hemen eskura daiteke: <http://trastero.speccy.org/Jesus/jesus.htm> 2014ko apirilaren 30ean kontsultatutako orria.

auzoko Iñaki Lopez Roda bizilaguna ezagutu zuen eta hark ireki zizkion mihiztatzaile-mundurako ateak. "Harekin lortu nuen argibide guztiak xehetasunez ulertzea".

Orduan, Iñigo Ayok bideojoko bat egitea pentsatu zuen.

KHAZZAD-DUM

Ayoren lehen jokoaren oinarria 'Abu Simbel Profanation'²⁰ izan zen. "Jokoa hain bitxia iruditu zitzaidanez, desmihiztatu egin genuela. Hura benetako autopsia bat izan zen" azaltzen du programatzaileak. Azterketa sakona egin zutenez, gazteek ulertu zuten nola funtzionatzen zuen jokoaren kode-lerro bakoitzak. "Pantailak, grafikoak, panpina... den-dena aldatu ahal izaterainoko mailara iritsi ginen. Hor ikusi nuen nola muntatzen zen joko bat, nola mapeatzen zen eta nola egiten ziren pantailak, arerioen errutinak eta horiek pantailan kokatzeko modua".

"Une horretan esan nuen:

- 'Abu Simbel Profanation' bezalako joko bat egin nahi dut. Filosofia bera daukan jokoa".

1986 bete-betean, Ayok eta lagunek –Julen Ardeo, Iñaki Lopez Roda eta Jorge Aral²¹ dendetan salduko zen bideojoko bat ateratzea helburu jarri zioten beren buruari, 'Profanation' jokoaren *know how* baliatuz. "Hasieran, 'Dark Castle' edo antzeko zerbait deitzen genion". Plataformen *arcade* "oso arrunt" bat zen, hainbat pantaila zituen eta zenbait arerio gairatu behar ziren. Jokoaren istorioak jasotzen du, Banglir jaun iluna akabatzeko Earendilek (jokalaria) basoan banatuta dauden aginte-makila baten bost pieza jaso behar dituela.

20. Dinamic Software, 1985.

21. Ayo, Ardeo, López Roda eta Aral lagunek garapen-talde bat sortu zuten Líder Soft izenarekin. "Egia esan, Jorge Aral ez zen egon Líder Soft talderen sorrera-hazian. Julen Ardeoren laguna zen eta MSX zeukan. Hortaz, laguntza eskatu genion musikarekin, pianoa jotzen zekielako. Uste dut haren laguntza ez zela harago joan", ziurtatzen du Iñigo Ayok.

"Garaiko jokoetan oinarrituta dago. Ez zen oso joko originala". Jolasteko modua 'Profanation' jokoaren berdin-berdina zen", berritasunen bakar zuen; pantailako arerio guztiak ezabatzeke aukera ematen zuen sorginkeriak zeukan. "Nolanahi ere, ilusio handia egiten zigun dendetan joko bat saltzeko aukerak eta, bide batez, diru asko irabazteak, programatzaileek asko irabazten zutela esaten baitzen".

Ayoren garai hartako lagun ia guztiek ekarri zuten, ahal zuten heinean eta ezagutzen arabera, egin zuten ekarpena. Batzuek marrazkiak eta animazioak egin zituzten; besteek, mailak eraiki zituzten eta ideiak edo programazio-errutinak ekarri zituzten. Hain trebeak ez zirenak jokoan jolastu ziren ase arte, egon zitezkeen akatsak aurkitzeko. Bere aldetik, Sopolako programatzailea orkestra-zuzendari bihurtu zen eta amaierako produktua lotzeaz, konpilatzeaz eta ixteaz arduratu zen.

Pantailak sortzeko "programatxo" bat sortu zuten, hau da, pantailak egiteko eta maketatzeko aukera ematen zuena programa. Horrela, taldeko partaide bakoitzak bere mailak egin zitzaizkeen etxean. "Gero, kodea gorde eta hurrengo egunean, geneukana nahasten genuen, eta guztia osatzen joaten ginen".

Itxurari dagokionez, hasieratik "Erdi Aroko ukitu" bat eman nahi izan zioten jokoari, gazteluak, aizkorak nahiz garezurrak eta sugedun aginte-makilak erabiliz. Herrixkak ere sortu zituzten 'Pottokiak' komikiko etheen erreferentzia hartuz edo 'Bazen behin gizakia' istorioko hartzak erreferentziatzat hartuta. "Nahiko ondo ematen zuten gauzak islatzen ahalegintzen nintzen, baina horietako zenbait nahiko barregarri geratzen ziren", onartzen du gaur egun Iñigo Ayok berak.

Garapenaren ia amaieran sortu zen jokoak izango zuen izena. "Koadrilako lagun batek esan zuen jokoak 'Khazzad-Dum'²² deitu zitekeela. Izen bitxia zen eta hala geratu zen". "Grafikoren bat aldatu genuen ia-ia eginda zegoen jokoak izendatzeko".

22. Iñigo Ayok baieztatzen du Areetako (Getxo) koadrilako Manu Marquez lagunari proposatu ziola, "J.R.R. Tolkien idazlearen lan ororen zale handiari". 'Eraztunen Jauna' liburuko Khazad-dûm zubitik dator izena.

Une horretan, Ayo arduratu zen kopiak bidaltzeaz garai hartako Espainiako banatzaileei. "Uste dut Topo Soft²³ izan zela horietako bat, baina ez ziguten erantzun eta ez ziguten ezer esan". Orduan, programak banatzen zituen Espainiako enpresa baten bidez, aukera berri bat sortu zen. Idealogic²⁴ deitzen zen enpresa eta Bartzelonan zuen egoitza. "Pentsatzen dut *freelance* programatzaileen jokoak²⁵ eskatzen zituzten iragarkiren bat ikusiko nuela edo horrelako zerbait". "Postaz bidali genien zintaren kopia bat. Asko gustatu zitzaien eta telefonoz ziurtatu ziguten banatuko zutela".

Alabaina, dena okertu zen. Ustez 'Khazzad-Dum' salgai zegoela²⁶, telefonoz hitzartutako kontratuaren eta baldintzen zain jarraitu zuten Ayok eta bere taldeak. "Denbora aurrera zihoan eta Idealogic enpresaren berririk izan gabe jarraitzen genuen. Deitu eta deitu aritu nintzen, baina gerentea lanpetuta zegoen beti. lruzur eta gezur usaina hartu nion, eta, hortaz, beste pertsona baten itxura egin eta bingo! Damià²⁷ jaunak telefona hartu zuten eta hamaika aitzakia jartzen hasi zitzaidan: porrota izan zela, ez zegoela salmentarik, nahi nuenean handik pasatzeko eta gaia itxiko genuela... Hala ere, Ayok 'Khazzad-Dum' foiletoia igarotzen uztea erabaki zuen, hurrengo urtera arte gutxienez.

23. Bideojokoen ekoizle espainiarra, Erbe Software banatzailearen ordezkatzatzailea (1986-1991).

24. 'The Punisher' blogak jasotzen duenaren arabera, Idealogic enpresak software hezigarriaren, ofimatikako eta bulegoko aplikazioen arloan egiten zuen lan gaztelaniaz. "Bere ekoizpenaz gainera, Idealogic enpresak itzulitako software asko zuen; hortaz, garaiko joko hezigarriak onenetakoez gozatu ahal izan genuen, Spinnaker eta Fisher-Price enpresek ekoiztuta". Hemen eskura daiteke: <http://www.webxprs.com/blogpunisher/patitos-23-idealogic/>. 2014ko apirilaren 25ean kontsultatutako orria.

25. *MicroHobby* aldizkariak (2. urtea, 26. zk., 1985eko apirilaren 30eko aleak) iragarri zuen berrien atalean Idealogic enpresak negozioko "ildo berri bati" ekingo ziola honi dagokionez: "Programa berriak 13 urtetik aurrerako gazteentzat dira. Misteriozko, zientzia-fikziozko eta nobela klasikoko hainbat joko dira eta horietan erabiltzailea izango da protagonista".

26. Iñigo Ayok baieztatzen du gogoratzen duela jokoak ikusi zuela Bilboko El Corte Inglés dendako beira-arasetan "nahiz eta aldizkarietako publizitatearen izpirik ez zegoen".

27. Damià García i Priu jaunari buruz ari da, Idealogic enpresaren zuzendari exekutiboa.

1988an, Joseba Epalza eta Iñigo Ayo sopoloztarrei aukera sortu zitzaizen 'Abracadabra'²⁸ elkarrizketazko abentura bihurtzeko Amstrad eta MSX gailuetara. Berez, joko hori Jorge Blecua katalanak garatu zuen. Baldintza ekonomikoak eta epeak ixteko, Epalza Blecuarekin bildu zen Bartzelonan. "Iñigo hurrengo egunean iritsi zen -konde-hirira- eta harekin Idealogic enpresaren instalazioak bisitatzea joan ginen, gu han ikusitakoan gerenteak jarriko zuen aurpegia ikusteko", gogoratzen du 'El Almacén'²⁹ jokoaren sortzaileak.

Kaleko bulegoak "oso txikiak" ziren, gestoria batekoaren antzekoak. Atea jo zuten eta idazkari batek hartu zituen. Pixka bat itxaron behar izan zuten arren, azkenean Idealogic enpresako gerenteak hartu zituen bere bulegoan. "Damiàk tipo jatorra ematen zuen eta 'Khazzad-Dum' jokoak ezusteko ekonomikoa izan zela argudiatu zuen. Ez zuen ezer saldu, eta, horregatik, ezin zigun *royalty*rik eman; izan ere, eurak ere ez zuten lortu merkaturatzearen inbertsioa berreskuratzea", esaten du Ayok.

Konpentsazio gisa, Idealogic banatzailearen arduradun nagusiak ziurtatu zigun eskubideak Líder Software enpresarenak izaten jarraitzen zutela. Era berean "Khazzad-Dum jokoaren kaseteekin betetako kaxa bat, diseinuan esku hartu ez nuen karatula bat zuela" eta erabilita zegoen "baina funtzionala" zen Spectrum +3³⁰ gailu bat ere oparitu zigun. "Etxera nahiko pozik itzuli nintzen, jatorrizko zintez betetako kaxa bat nuela; hain justu lagunei eta ikaskideei oparitu nizkien".

Banaketari begira Idealogic enpresarekin kontraturik sinatu ez zutenek, Ayo eta lagunak aske ziren 'Khazzad-Dum' jokorako banatzaile berri bat bilatzeko. "Arazoa zera zen, garai horretarako ez zirela onartzen plataforma bakarrerako bertsioak eta ia-ia ezinbestekoa zela bi edo mikoordenagailu nagusietarako sortzea: Spectrum, Amstrad CPC eta MSX".

28. ZX Spectrum 48K gailurako garatua eta Proein Soft Line enpresak banatua 1988an.

29. "Iñigok oraindik ez zekien zer egingo zuen etorkizunean 'Abracadabra' jokoaren bertsioarekin; horregatik, nik soilik hitz egin nuen Blecuarekin", zehaztu du Joseba Epalzak.

30. ZX Spectrum 128 gailuaren goi-mailako modeloa, 3" diskete-unitatea zeukan 1987an merkaturatu zen.

Hala ere, Iñigo Ayo ez zegoen MSX gailurako bertsioa sortzeko prest. Une horretan lehenetsunezko konpromiso bat zuen Jorge Blecuaren 'Abracadabra' elkarrizketazko abenturaren estandar japoniarerako bihurtzea amaitzeko. Hori zela-eta, azkenean, moldaketak Iñigo Otxoaren eskuetan amaitu zuen, "Areetako koadrilako" Ayoren lagun batenean, alegia, eta zenbait hilabete egin behar izan zituen lanean.

Denbora horretan, eta sopoloztarrak Iñaki Lopez Rodarekin zuen harremanari esker, Igor Ruiz 'Konstandin' bilbotarra ezagutu zuen. Bizkaiko hiriburuko Zazpikaleetan bizi zen gazte hura, Iturribide kalean. "Gogoan dut, zuen itxurarekin, hari buruz izan genuen lehen iritzia zera izan zela: honek labana aterako digu. Izan ere, aurkeztu ginenean hau esan zigun: Kaixo, Igor naiz, baina 'Veneno' dei nazakezue".

Ruizek bazuen esperientzia jokoak argitaratzen. Lehentxeago atera zuen Antonio Ballesteros, David Goti eta Patxi Lecumberri bilbotarrekin 'Evaristo el Punky' bideojokoa System4³¹ banatzaile espainiar txikiaren Software de Programadores Españoles (SPE) zigilupean.

Iñigo Otxoak 'Khazzad-Dum' jokoa MSX gailurako bertsioa amaitu eta araztu ondoren, Igor Ruizek System4 enpresarekin jokoa berriz banatzeko aukera proposatu zien, eta haiekin harremanetan jarri ziren 1989an. "Kopia bat bidali genien eta interesgarria iruditu zitzairen". Bertsio horretarako, bilbotarrak hainbat aldaketa egin zituen grafikoetan, batez ere aurkezpeneko pantailan eta azalean.

Azkenean, 'Khazzad-Dum' jokoa berriz agertu zen dendetan 1989ko lehen hilabeteetan eta emaitzak bildu zituen. "Spectrum gailuko bertsioagatik 63.000 pezeta (378,64 euro) baino zerbait gehixeago lortu nuen taloi bakar batean. Diru horrekin ez nituen estali joko honekin jasan behar izan nituen buruhausteen erdiak ere. Gainera, nahi baino bi urte geroago ezagutarazi zen, mota horretako jokoak katalogotik kanpo zeudenean".

31. "Bigarren mailako" banatzailea; "ahalegin handiak" egin zituen banaketa on bat lortzeko, aurrekontu handirik izan gabe, "The Punisher" blogak jasotzen duenaren arabera. Hemen eskura daiteke: <http://www.webxprs.com/blogpunisher/patitos-15-system4-spe/>. 2014ko maiatzaren 15ean kontsultatutako orria.

Ayoren ikuspuntu hori bera izan zuen *MicroHobby* aldizkariak ere, 'Khazzad-Dum' "grafiko atseginak eta neurriko zailtasuna zituen eta *katigagarria*" zen jokotzat definitu baitzuen, eta garapen "ez zehazki motza eta bai entretenigarria" zeukala adierazi zuen. "Akats bakarra dauka; hain zuzen ere, programak arrakasta handia eduki zezakeela orain dela lau edo bost urte, *arcade* mota hauek modan zeudenean. Denbora guzti honetan, ordea, programazio-teknikek bilakaera handia izan dute eta plataforma-*arcade*ek 'Khazzad-Dum'³² honen *look* desberdina dute gaur egun".

ABRACADABRA

Ideologic enpresarekin izandako desengainuaren eta 'Khazzad-Dum' jokoa SPE markapean agertzearen artean, Sopolako bi bizilagunek ordenagailuen bildumari makina berri bat gehitzea erabaki zuten. Joseba Epalzak bigarren eskuko Amstrad CPC6128 bat eskuratu zuen eta Iñigo Ayok MSX bat, Getxoko lagun-taldeko Iñaki Lopez Roda, Iñigo Otxoa eta Oscar Querejazu lagunek eraginda.

'Abracadabra' jokoa Amstrad CPC eta MSX gailuetara eramateko proiektua 1988an sortu zen. *SPAC*³³ sareko aldizkarian argitaratutako elkarrizketa batean, Joseba Epalzak baieztatu zuen, Proein Soft Line³⁴ banatzaileak langileak eskatzen zituela iragartzen zuen iragarki bat ikusi zuela aldizkari batean. Itxura denez, Jorge Blecuak Spectrum gailuan egin zuen jokoa eta programatzaileak behar zituzten garaiko beste ordenagailu batzuetarako bertsioak egiteko. Proein enpresak harremanetan jarri zuen Blecua Epalzarekin "jokoaren arauak ezarri ahal izateko" Amstrad gailurako bertsioan.

32. *MicroHobby*, 196. zk. 36. eta 37. orriak.

33. Club de Aventuras AD (CAAD) webguneak argitaratzen duen Elkarrizketazko Abenturak sustatzeko elkartea. Hemen eskura daiteke: <http://spac.caad.es/1/spac44.htm>. 2014ko maiatzaren 4an kontsultatutako orria.

34. 'The Punisher' blogak argitaratzen duenaren arabera, Espainiako banatzaileak merkataritza-akordio bat egin zuen 90eko hamarkadan Core Design enpresarekin. Hain zuzen, Tomb Raider markaren arduradunak ziren eta haztea ahalbidetu zion. 2008an Koch Media Alemaniako banatzaile multinazionalak erosi zuen.

"Egun batean Spectrum gailuko zinta bat pasa zidan bere ideia guztiekin nik Amstrad gailura aplikatzeko". Sopelakoak erakusteko zerbait izatean, Bartzelonara joatea erabaki zuen Blecuarekin berarekin elkartzeko. Autobusa hartu zuen Iñigo Ayo lagunarekin batera eta Plentzian (Bizkaian) uda guztiak igarotzen zituzten Josebaren gurasoen lagun batzuen etxean hartu zuten ostatu.

"Asteburu horretan harri batez bi kolpe egin genituen. Blecuarekin hitz egin ahal izan nuen Amstrad gailura bere jokoa bihurtzeari buruz, eta, gainera, Ayori lagundu nion Idealogic enpresara Damià jaunari 'Khazzad-Dum' jokoarekin zer gertatzen zen galdetzeko".

Epalzak gogoratzen du Blecuarekin bilduta egon zela ordu pare batez eta Sopelara itzuli zela "zenbait paper zituela eta Spectrum gailurako jokoaren egitura zuen zinta batekin".

Jorge Blecuaren jokoa Professional Adventure Writer (PAW)³⁵ sistemarekin programatuta zegoen, eta marrazkiak egitea, hiztegia sortzea eta istorioa asmatzea ahalbidetzen zuen funtsean. Ondoren, programak jokoa osatzeko aukera ematen zuen. PAW sistema erabiltzeak *royalty*ak eskatzen zituenenez, Epalzak Spectrum gailurako egindakoa emulatuko zuen interprete bat sortzea erabaki zuen.

Bihurketa lanerako "lau bat hilabete" behar izan zituen. Gainera, Sopelakoak Amstrad gailurako bertsioari kopien aurkako zenbait neurri gehitu zizkion, hala nola, "*Amstrad User* aldizkariko orrietan ikasitakoak eta nire kabuz ikasitakoak baita ere". Hala ere, ezer gutxirako balio izan zuten. Epalzak gogoratzen du Proein enpresarekin egindako akordio ekonomikoa "hitzezkoa" izan zela eta "pixka bat desengainatuta" sentitu zela gauzatu zen moduz.

"Hiru ordainketa besterik ez nituen jaso, gutxi gorabehera 15.000 (90,15 euro), 25.000 (150,25 euro) eta 60.000 pezetakoak (360,61 euro) eta oso gutxi irudi zitzaidan lau hilabeteko lanaren truke.

35. Gilsoft International (Erresuma Batua) enpresak 1986an sortutako elkarriketazko abenturen sortze-sistema; Aventuras AD enpresa espainiarrak merkaturatu zuen, Dinamic enpresaren enpresa-*spin off*ak, alegia.

Bitartean, jokoak dendetan salgai jarraitzen zuen". 'Abracadaba' jokoaren ondoren, banatzaileak Epalzari eskaini zion haientzat lan egitea, baina Madrilera bizitzera joan behar zuen. "Ikasten ari nintzen eta une horretan horrelakorik ez zen sartzen ez nire planetan ez nire gurasoenetan ere", onartzen du.

Epalzaren bihurketaren aldi berean, MSX gailurako 'Abracadabra' jokoak egiten ari zen Marcos Jouron programatzaile asturiarra. Halabeharrez, Dinamic enpresarako zenbait urtetan *freelance* gisa lanean aritu ondoren, azkenean barne taldeko kide bat gehiago izateko aukera eskaini zioten.

Bihurketa erdizka geratu zitzaion Proein Soft Line enpresari eta aldizkarietan argitaratutako programatzaile berriei buruzko iragarki baten bidez iritsi zitzaizkien proposamen guztien artean bila hasi zen. Une horretan agertu zen Iñigo Ayo, eta, azkenean, Jouronen lekukoa hartu zuen. "Gogoan dut baietz esan nuela. Marcosek guztia bidali zidan; ia-ia zoratu ninduen informazio- eta akats-jario hark. Uste dut hutsetik hasita denbora gutxiago behar izango nuela".

Ofizialki, 'Abracadabra' 1988. urtearen amaieran jarri zen salgai. Lehenengo, Spectrum gailurako Jorge Blecuaren bertsioan, eta, ondoren, Joseba Epalzaren eta Iñigo Ayoren bertsioetan. Azken horrek gogoratzen du 35.000 pezeta (210,35 euro) kobratu zituela, 20.000 eta 15.000 pezetako bi taloitan. "Gaizki ordaindua zegoen, baina dibertsio hutsez egiten genuen. Askotan, gure izena kaxan inprimatuta ikusteak asebetetzen gintuen", onartzen du.

EVARISTO EL PUNKY

Lehen aipatu bezala, 'Evaristo el Punky' da Igor Ruiz 'Konstandin' bilbotarrak egindako lehen bideojoko komertziala. Bideojoko horretan parte hartu zuten, Antonio Ballesteros, David Goti eta Patxi Lecumberri lagunek ere. Garaiko gazte ia guztien moduan, Ruiz txundituta geratu zen 8 biteko mikroordenagailu haien aukerekin; batez ere, ZX Spectrum gailuenarekin. "Ikasteko balio zuela" aitzaki hartuta lortu zuen bere lehen "gomaduna" gurasoei "gogaitu" ondoren.

ZX Spectrum gailuak zituen 48K ederrekin hasi zen programazioan lehen urratsak ematen, Basic lengoaian bereziki. Baina berea ez zen programatzea, koadernoetan egiten zituen marrazkiak telebistako pantailara eramatea baizik. 1986an, Madrilera eramango zuen jauzi profesionala eta Opera Soft enpresan erabat sartu baino bi urte lehenago, Ruiz auzoko lagunekin bildu zen lehen bideojoko bat egiteko eta dendetan ikusi ahal izateko.

Dibertsio elektronikoaren egarria zuten gazte haien eskuetara iristen ziren jokoak zinta guztien artean, bazeuden batzuk Iturribide grafistari atentzioa ematen ziotenak grafiko bereziak izateagatik. Ultimate³⁶ enpresaren jokoak ziren, hala nola 'Knight Lore' (1984) edo 'Alien 8'. Bista isometrikoa lortzeko teknika bat erabiltzen zuten, eta Filmation deitu zioten hiru dimentsiotako efektu bat lortzen zen.

Arrakasta kontuan hartuta, beste enpresa batzuk, Ocean Software³⁷, adibidez, jokoak irudikatze modu horri batu zitzaizkion eta estilo horretako jokoak egitea ahalbidetzen zuten motor grafiko batzuk agertu ziren merkatuan. Horietako bat izan zen Igor eta lagunek 'Evaristo el Punky' egiteko erabili zutena, '3D Game Maker'. Iain Christopher Hayward eta Jared Derrett britainiarrek sortu zuten eta Espainian Dro Soft enpresak banatu zuen hasieran.

Spectrum Forever³⁸ web orriak egindako azterketaren arabera, *enginea* "ahaltsua, intuitiboa eta erabiltzeko erraza da", baina, aldiz, sistema horrekin sortutako joko guztietan jolasteko modua bera izatea eragiten zuen. Zerk desberdintzen zituen? Grafikoek. Eta horixe zen bilbotarraren indargunea.

36. Ultimate Play the Game entretenimendu-softwareko enpresa britainiarra Tim eta Chris Stamper anaiek sortu zuten 1982an.

37. David Ward eta Jon Woods egileek laurogeiko hamarkadaren hasieran Manchesterren (Erresuma Batua) sortutako bideojoko enpresa.

38. 3D Game Maker: http://spectrumforever.speccy.org/reviews_roms/titulos/3d_game_maker/3d_game_maker.html. 2014ko maiatzaren 15ean kontsultatutako orria.

Zalantzarik egin gabe, Ruiz, Ballesteros, Goti eta Lecumberri lanean hasi ziren, eta punkya protagonista den joakoa egiten hasi ziren; "gandorra moztearekin eta tupe bat jartzearekin zin egin duten rockero *patillero*" batzuek bahituta duten neska askatu behar duen punkyaren joko.

Jokoa amaitu ondoren, berau argitaratzeko modua bilatu zuten. Zenbait banatzaile kopiak kaseteetan bidali ondoren, System 4 enpresak interesa agertu zuen produktuagatik. Jokoa kargapantailan 1988 urtea egite-data gisa agertzen den arren, 'Evaristo el Punky' hurrengo urteko apirilaren eta maiatzaren artean iritsi zen dendetara, argitalpen espezializatuetako aipamenei eta azterketek jasotzen duten moduan.

Bilbotarren jokoari egindako kritikak ez ziren oso onak izan. Adierazten zutenenaren arabera, "programa komertzial gisa, uste izatekoaren azpitik zegoen" ³⁹. Hala eta guztiz ere, Igor Ruizek joko maitasun handiz gogoratzen jarraitzen du, bideojokoen industriari egindako ibilbide luzearen oinarria izan baitzen.

AI abordaje

'Abracadabra' MSX gailurako sortu ondoren, Ayok bideojokoen sorkuntzan interesatuta jarraitu zuen eta elkarrizketazko abenturekin ahalegindu zen. "Asko gustatzen zitzaizkidan; tradizionalki 'Hobbit'⁴⁰ eta 'Robin of Sherlock'⁴¹ jokoetan jolastu nintzen. Garai hartan bazeuden 'The Quill Adventure System' edo PAW bezalako tresnak, joko mota hori gauzatzeko. Programa horiek interprete gisa funtzionatzen zuten eta programatzaileak oinarri bat zehatz zezakeen hitzekin, pertsonaiekin, gelek, sarrera eta irteerekin eta, ondoren, joko sortu".

39. *MicroHobby*, 189. zk., 32. orria.

40. J.R.R. Tolkien idazlearen liburu homonimoan oinarritutako elkarrizketazko abentura. Melbourne House (Erresuma Batua, 1982).

41. Silversoft Ltd enpresak banatu zuen (Erresuma Batua, 1985) eta Delta 4 Software enpresak sortutako elkarrizketazko abentura bat da.

"Elkarrizketazko abentura horiek sortzeko Ayok PAW sistemarekin aurre egin behar izan zuen arazoetako bat izan zen "mugak zituela irudikapen grafikoei zegokienez". "Amiga gailuetarako joko batean zera ikusi nuen, bi pertsonaia gela berean zeudenean, haien aurpegiak ikusten zirela. Era berean, gustatzen zitzaidan inbentarioan zeneuzkan objektuak ikusi ahal izatea, 'Indiana Jones and the Last Crusade'⁴² jokoaren estiloan".

PAW sistemak hori onartzen ez zuenez, "mihizatzea erabaki nuen gaitasun grafiko handiagoak zituen abentura pertsonalizatu bat sortzeko asmoarekin, *bitmaps* grafiko-argibide berriak txertatuz eta MSX gailurako exekuzio-emuladore bat inplementatuz, abentura bi sistematan ateratzeko xedez".

Aldatutako tresna berri horrekin, Ayo piratei buruzko joko bat garatzen hasi zen, 'Isla del Tesoro' jokoaren antzera. Protagonistak hainbat leku bisitatu zituen, nabigatu egin zezakeen eta beste pertsonaia batzuekin elkar eragiten zuen. "Abentura, berez, 'Piratas' deitzen zen; ondoren, 'Los vientos de Yadhe' deitu zen, eta, azkenean, 'Al abordaje' izenarekin geratu zen. Oso itxura ona zuen eta erronka pertsonal gisa hartu nuen, produktu honen salmentak oso onak izan ezin zitezkeela jakinda".

Joko hori ez zen inoiz iritsi dendetara. "Aventuras AD⁴³ zegoen modan, eta beta bat bidali nien. Nire zorigaiztorako eta erabateko desengainurako, ez zidaten erantzun". Gaur egun, Sopolako bizilagunak jokoaren *master* kopia funtzional bat gordetzen du, baita dokumentazio guztia ere.

JUNGLE WARRIOR

lñigo Ayok berriz ere bideojoko bat editatzeko asmoarekin tematuta jarraitzen zuen. lñaki Lopez Roda buru pentsalariaren eskutik sortu zen proiektua, 'Jungle Warrior' izaten amaituko zuena, hain justu.

42. LucasFilm Games enpresak 1989an jaulkitako abentura grafikoa da, Ron Gilberten zuzendaritzapean, 'Indiana Jones eta azken gurutzada' filmean oinarrituta.

43. Dinamic Software enpresaren enpresa-*spin off* bat; Andrés Samudiok zuzendua eta 1989 eta 1992 artean elkarrizketazko abenduren generoko jokoak ekoiztea ardatz zuena.

Orduan, David Goti bilbotarra ezagutu zuten, "ez dut gogoratzen joko-trukeren edo antzekoren batean izan ote zen", eta aldi berean, hark Igor Ruiz 'Konstandin' aurkeztu zien. "Lehen aldiz Areetan geratu ginen eta ez genekien zer itxura izango zuen. Han agertu zen galtzak beldurrez zikintzeko moduko tipo bat. Punky-itxura tipikoa zuen, galtza oso estuekin, oso axolagabe itxurarekin, mota guzietako zintzilikariekin... Hura fitxajea, hura!" gogoratzen du jostagarriki Ayok.

Igor grafikoen eta ordenagailuen zale amorratua zen. Ideia asko zituen beti, baina garai hartan programazioari buruz zituen ezagutzak oso mugatuak ziren. Ezagutzen zuen egitura, baina ez zekien lengoaia bere horretan. Primeran zekizkien, ordea, makina arkaiko haien mugak. Grafikoak moldatzeko eta ekipoen mugetara zirkunskribatzeko gai zen.

"Agertu zen egunean marrazki batzuk ekarri zizkigun lagin gisa. Dracula izeneko banpiro bat zen. Dinamic enpresan egiten zituzten antzeko grafikoak ziren. Itzelak! Horrek ateak ireki zizkigun, Igorrekin askoz ere gauza gehiago egin baikenitzakeen".

Ordutik aurrera, Ayo, Lopez eta Ruiz larunbatetan geratzen hasi ziren hitz egiteko eta "trago batzuk" hartzeko. "Igor beti agertzen zen bere animazio guztien grafiko pilo batekin eta guri ez zigun astirik ematen kodean ezer idazteko!". Topaketa horietan 'West' egiteko asmoa sortu zen, mendebalde basatiari buruzko bideojoko bat; izan ere, Sopolako bizilaguna 'Gun Smoke'⁴⁴ jokoaren oso zalea zen, 'Commando'⁴⁵ jokoaren antzeko joko bat, baina *cowboy*-ukituekin.

"Egun batean, pistolari batzuen, bisonte batzuen eta basamortuko landare birakari batzuen grafikoekin agertu zen Igor, eta, hortaz, grafiko horiek pantailan irudikatzeko errutinak egiten hasi ginen. Menu bat, bisonteen ihesaldi bat hesi baten atzean, eta abar egin genituen, baina, azkenean, ezerezean geratu zen". Hiru partaideak denbora librea beste zeregin batzuetan pasatzen hasi ziren antza.

44. Espainiako mugetatik kanpo 'Desperado' jokoak zuen izena (Topo Soft, 1988).

45. Capcom enpresak 1985ean jaulkitako desplazamendu bertikaleko *shoot 'em up* generoko *arcade* joko bat.

Nolanahi ere, bideojoko berri bat garatzeko ideiak bizirik irauten zuen Iñigo Ayorengan. Sopolako etxetik hurbil zegoen taberna batean 'Pitfall II: Lost Caverns'⁴⁶ jolas-makina zegoen. "Nire obsesioetako bat zen", onartzen du. David Cranek sortutako jokoaren erreferentziatzen hartuta, Ayo jokoari forma ematen hasi zen. "Jokoaren egitura diseinatu nuen, esploratzaile bat eraiki nuen, animazioak eta pantailak egin nituen, eta Ultimate enpresaren 'Sabre Woulf' jokoko grafiko batzuk ere hartu nituen, itxura emateko eta espazioak betetzeko" baieztatzen du, gorrituta.

Bestalde, eta 'Evaristo El Punky' egin ondoren, Igor Ruizek Madrilera joatea erabaki zuen "han baitzeuden bideojoko-enpresa bakarrak"⁴⁷. Han hasi zen *freelance* gisa lanean Javier Canok zuzendutako Animagic⁴⁸ sortu berriarentzat, eta bertan Juan Carlos García⁴⁹ programatzailea ezagutu zuen, hura ere autonomoa.

Une horretan jarri zen harremanetan berriz ere Iñigo Ayo Sopolako programatzaile Igorrekin eta programatuta zeukan 'Pitfall II' jokoa omenaldiaren zatia bidali zion. Bilbokoari gustatu zitzaion lana eta laguntzea erabaki zuen, grafikoak eta animazioak birmoldatuz.

Ayok aipatzen du "esploratzailea motxilarekin eta jokoa amaieran askatu behar den neska, bidali zizkidan Igorrek eta zenbait grafiko berreskuratu genituen 'West' jokotik, hala nola indiarra eta eskorpioia".

46. 'Pitfall!' jokoa sekuela bat; Atari 2600 gailurako atera zen 1984an. David Cranek diseinatu zuen eta Activision enpresak argitaratu zuen. Urtebete geroago, Sega enpresak eskuratu zuen lizentzia jokoaren jolas-makinetara eramateko.

47. Igor Ruizen aipamenak erakusten du Donostian estudio bat zegoen arren, garatzaileen beste talde batzuen ezagutza ez zela mugatzen lagun- edo familia-ingurutik harago.

48. Animagic 1989. urtearen hasieran sortu zuen, Javier Canok Topo enpresa utzi ondoren bere enpresa sortzeko ahalegin batean. Enpresa "langile taldean hamaika pertsona" izatera heldu zuen, MicroHobby aldizkariak egindako elkarrizketa batean esandakoaren arabera, eta horiez gain, «zenbait programatzaile eta grafista *freelance* zeuden; horiei zenbait proiektu eskatzen zitzaienten, ekoizpen-sailaren gainbegiradapean, betiere». Dro Soft enpresaren bidez merkaturatu ziren hauen jokoak. Hala ere, Animagic enpresaren negozio-ildo garrantzitsuenetako bat hirugarrenentzako lanen babesa izan zen, azpikontratazio gisa.

49. 'Desperado' (Topo Soft, 1987) eta 'Los Inhumanos' jokoen programatzailea (Delta Software, 1990).

Halaber, ideiak jaso zituzten beste izenburu batzuetatik ere, besteak beste zorua 'Ghosts'n Goblins' jokotik, "belarra ikusten da eta azpian lurra", eta "xeheetasun pertsonalak" jolas-makinetatik. Adibidez, "ezer ez dagoela ematen duen mailetako lekuak, baina salto eginez gero, sekretu bat ezkututzen dutenak". Jokoaren garapena sei hilabetera luzatu zen.

Hasieran, jokia 'Inka' deitzen zen eta argumentu oso arrunta zeukan. Programatzaileak dionaren arabera, "salakot⁵⁰ bat zeukan esploratzaile bati buruzkoa zen eta zenbait oztopo saihestu, tenplu bat zeharkatu, haitzulo batzuk gurutzat eta irteera aurkitu behar zituen".

Ayo-Ruiz⁵¹ tandemak "zerbait nahiko dezentea" eduki zuenean, hainbat banatzailei aurkeztea erabaki zuten. "Garai hartan, Igor eroso mugitzen zen Espainiako hiriburuan», Zigurat Software⁵² enpresarekin jarri zen harremanetan eta erakustaldi bat eraman zien. Igorrek berak kontatzen du jokia "ia-ia amaituta" zegoela. "Zerbait faltako zitzaion: markagailuak, Zigurat enpresaren logoa, menua edo kredituak".

"Asko gustatu zitzaion eta banatzeko prest zeuden" arren, Sopelako programatzaileak baieztatzen du jokoak Amstrad eta MSX ordenagailuetarako bertsioak izatea eskatu zirela. Azken hori arazoa zen, Ayok ez baitzuen Alan Sugarren⁵³ makina. Hala ere, Zigurat enpresakoek Amstrad 6128 bat bidaltzea erabaki zuten, jokia presta zezan sistema horretan, eta, ondoren, itzultzeko. "Amstrad

50. Garapenean, alde batera utzi zen salakota eta esploratzaileak Arnold Schwarzenegger aktorearen itxura hartu zuen.

51. True Software da Iñigo Ayo eta Igor Ruiz 'Konstantin' egileek osatutako garapen-taldearen izena.

52. Zigurat Software zen Made in Spain enpresaren marka eta haren pean banatzen ziren Espainia osoan banatutako programatzaile autonomoen taldeek egindako programak. Bestalde, Madrileko enpresaren barne-taldeak sortutako jokoak Made in Spain firmaren pean joaten ziren, www.amstrad.es atariaren arabera. 2014ko maiatzaren 7an kontsultatutako orria.

53. Alan Michael Sugar izan zen Amstrad enpresa britainiarraren arduradun nagusia 1968an sortu zenetik 2008ra arte.

gailuari zegokionez, arkitekturaren % 85 ezagutzen nuen, Z80 mikroprozesagailu bat zeukalako".

'Inka' jokoaren bertsoak hiru ordenagailutarako garatuta, Ayok (19 urte zituela) bidaia bat prestatu zuen Zigurat Software enpresaren bulegoetara. Hain zuzen, Madrileko Cardenal Herrera Oria etorbideko 163. zenbakian zeuden. "Aste harrigarria izan zen" gogoratzen du. Jokoaren hiru bertsoak arazteaz eta *masterak* prestatzea arduratu zen. "Han ezagutu nituen Fernando Rada, Carlos Lopez, Jorge eta Carlos Granados, 'Sir Fed' edo 'El misterio del Nilo' jokoen sortzaileak, besteak beste".

"Esperientzia oso aberasgarria izateaz gain eta laneko giroa gozamina izan zen. Hara iritsitakoan, lehenengo egunean berriketan aritu ginen eta bazkaltzera eramanez ninduten". Goizean, programatzaile bizkaitarrak jokoa arazten zuen Zigurat enpresan eta arratsaldean, berriz, lgorrekin geratzen zen "Opera Soft enpresatik irtetean bila etortzen baitzitzaidan".

Izan ere, Ruizek ez zuen lan egiten ordurako Animagic enpresarako; aldiz, Madrilgo Gustavo Fernandez Balbuena kaleko 25. zenbakian kokatutako taldeko partaidea zen. Lanpostua lortu zuen, antza, '3 Dwarves'⁵⁴ jokoko marrazkiari esker atentzioa eman zuelako. Hain zuzen, *MicroHobby* aldizkariaren Diseinu Grafikoko IV. Lehiaketan bigarren postua lortu zuen harekin.

Hasiera-hasieratik, bilbotarra zintzoa izan zen eta lankideei ziurtatu zien Zigurat enpresak joko bat atera behar zuela non berak grafikoak eginez parte hartu zuen. Opera Soft enpresako joko-sorkuntza sailaren arduradunak berak, Jose Antonio Moralesek berresten du bertso hori. "Igorrek uneoro baieztatu zuen Iñigo Ayorekin batera garatutako jokoa enpresan sartu baino lehen prestatu zela".

Dendetara irten aurretik, Ayok amaituta utzi zuen *masterak* azken aldaketa bat izan zuen, 'Inka' deitu beharrean 'Jungle Warrior' deitu zitzaion. Era berean argumentu bat sortu zuten True Software enpresaren

54. 1989ko martxoko *MicroHobby* aldizkariaren 197. zenbakiko 14. eta 15. orriak. Aldizkariak jasotzen du bigarren saria 50.000 pezetakoa zela (300 euro).

lana justifikatzeko. Kasetearen karatulak jasotzen duenaren arabera, Amazoniako oihanen gainean hegan zebilen hegazkin txiki batek nahitaezko lurreratzea egin behar izan zuen eta soilik Keorg Kraken esploratzaileak eta Susan Vatta doktoreak biziraun zuten. Hala ere, azken hori Ugadú tribuak bahitzen du, eta, hortaz, Krakenek askatu egin beharko du. "Ez daukat honekin ezer ikustekorik. Hori guztia komertzialen gaia da, jokoei zentzua ematea atsegin baitute", onartzen du Sopolakoak.

'Jungle Warrior' 1990eko apirilean jarri zen salgai 975 pezetatan (5,86 euro) kasete formatuan eta 1.900 pezetatan (11,42 euro) diskete formatuan. Kasu horretarako, Zigurat enpresak hainbat orri oso kontratatu zituen garaiko aldizkari espezializatu nagusietan, *MicroHobby*⁵⁵ eta *Micromanía*⁵⁶ aldizkarietan, besteak beste. Horietan ikusi ahal izan zen Ángel Luis Sanchez ilustratzaileak egindako jokoaren azala, koloretan.

Komunikabideek eskuzabalik hartu zuten Iñigo Ayo eta Igor Ruiz 'Konstandin' egileen bideojokoa, 100etik 94 puntu emanda eta hamarretik zortzi puntu emanda, *MicroHobby* eta *Micromanía* aldizkarietan, hurrenez hurren. Iñigo Ayo "neofitoak" garatutako "mendekotasun handia sortzen duen programa da, eta, gainera, bisualki erakargarria". Halaber, *MicroHobby* aldizkarian bermatzen zen Ayoren "irudimenaren eta ongi-egite grafikoaren maila handiak askogatik gainditzen zuela maila galdagarria". "Izar itxura hartuko dute Zigurat eta True Software enpresentzat eta Iñigo Ayorentzat ildo honi jarraitzen badiote", amaitzen zen aldizkariako 40. orriko testua.

Micromanía aldizkariak, berriz, zera baieztatu zuen, jokoaren garapena "benetan erakargarria eta mendekotasun sortzailea" zela eta "grafikoen nahiz mugimenduek eta soinuek Zigurat enpresaren betiko maila bikaina⁵⁷" zutela nabarmendu zuen.

55. *MicroHobby* 198. zk., 27. orria (1990eko apirila).

56. *Micromanía Segunda Época* 23. zk., 71. orria (1990eko apirila).

57. *Micromanía Segunda Época* 23. zk., 30. orria (1990eko apirila).

*MSX Club*⁵⁸ mikroordenagailu estandarra ardatz zuen aldizkaria ere ez zen atzera geratu goraiamenetan bere analisisan, eta "hileko jokorik onena" sailkatu zuen. "Bidezkoa da onartzea 'Jungle Warrior' azkenaldian ohitu garen kalitate-mailatik askoz gorago egotea, egitura perfektua baitu eta jolasteko oso erraza baita" adierazten zen barruko orrietan.

Bi bizkaitarrek sortutako jokoak *Crash* argitalpenean ere aipatu zen; hain zuzen, argitalpen hori garai hartan Erresuma Batuko entzutetsuenetako bat zen. "Euro software" izeneko erreportaje batean agertzen da 'Jungle Warrior'. Erreportaje horretan Spectrum gailurako joko azpimarragarrienak aztertzen ziren, muga ingelesetatik kanpo. "Mendekotasun handia sortzen duen Zigurat Software enpresaren beste joko bat" zela aipatu zuten eta jolasteko erraza zela eta Keorg Kraken esploratzailearen igeri egiteko gaitasuna nabarmendu zuten. "Aztertzeke eta ikusteko gauza asko daude. Nahi den guztia dauka jokoak" esanez amaitzen zen aipamena⁵⁹ ingelesez.

Salmentei dagokienez, Ayok gogoratzen du Igor Ruizek bi edo hiru taloi nominal bidali zizkiola. "Kalkulatzen du orduko 700.000 pezeta inguru (4.207,08 euro) izan zirela". "Lehenengo txekearekin Berangoko (Bizkaia) Eroskin inprimagailu matrizial bat eta 3 ½ disko-unitate bat erosi nituen Spectrum +3 gailurako". Gainera, El Corte Inglés dendan PC 286 bat erosi zuen koloretako monitorearekin eta VGA txartel grafikoarekin "mundu guztiak oraindik EGA zeukanean eta PC unibertsoa 16 koloretara mugatzen zenean".

RESCATE EN EL GOLFO

'Jungle Warrior' jokoaren arrakasta adore-bultzada handia izan zen gazte bizkaitarrentzat eta horrek animatu zuen Iñigo Ayo industriari jarraitzera. "Ikusi nuen jokoak nahiko azkar gara nitzakeela" aurreko proiektuetan lortutako esperientziari esker. Bestalde, ordurako eginda nituen errutina asko nituen eta horiek lana aurreratzen laguntzen zidaten; gainera, jokoak PC gailuan programatzeko, konpilatzeko eta

58. *MSX Club* 64. zk., 20. orria (1990eko ekaina).

59. *Crash* 98. zk., 31.-33. orriak (1992ko apirila).

banatzaileak eskatutako formatuetara zuzenean lekualdatzeko gaitasuna gehitu behar zitzaion horri".

